# ETXAURIN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA SORTZEKO PROZESUA

*PROCESO PARA LA CREACIÓN DE UNA COMUNIDAD ENERGÉTICA EN ETXAURI*

| 2.SAIOA | PARTAIDEAK / *Asistencia* |
|---|---|
| 2023-03-09<br>18:00-19:30 | Herritarrak / *Ciudadanía*: 14 (8 emakume, 6 gizon) |
| | Udala / *Ayto.* : Idoia Aritzala Etxarren (alkatea) |
| | Dinamizazioa / *Dinamización*: Maria Arretxe (Goiener), Uxune Alustiza (Emun Koop.E) |

## 1. Aurkezpena / *Presentación*

Aurreko saioaren laburpena egin du Mariak.

*Idoia ha explicado el contexto del proceso.*

## 2. Prozesuaren antolaketa: lantaldeak / *Organización del proceso: grupos de trabajo*

Mariak azaldu du prozesu guztia hiru lantaldetan banatuta egingo dugula:

- Proiektuen lantaldea.
- Lantalde juridiko-administratiboa.
- Komunikazioko lantaldea.

Lantaldeek modu autonomoan funtzionatuko dute saiotik saiora. Euren zeregin nagusia izango da saio batetik bestera etxeko lanak egitea eta, gero, saioan, beste guztiei proposamenak aurkeztea.

Lantalde bakoitzaren funtzioak xehetasunez akta honen eranskinetan jaso ditugu.

Galde-erantzunetarako tarte bat hartu dugu.

*Maria ha explicado que el proceso se realizará divididos en tres grupos de trabajo:*

- *Grupo de trabajo de los proyectos.*
- *Grupo jurídico-administrativo.*
- *Grupo para la comunicación.*

*Los grupos de trabajo funcionarán de forma autónoma entre sesiones. Su función principal será realizar sus correspondientes tareas de sesión a sesión y, después, en la sesión, presentar propuestas al resto de personas.*

*Las funciones detalladas de cada grupo están recogidas en los anexos de este acta.*

*Se ha tomado un tiempo para responder a las preguntas*

## 3. Talde dinamika: funtzioak ulertu / *Dinámica de grupo: funciones*

Uxunek talde dinamika azaldu du. Hiru taldetan banatu gara mahai banatan. Talde bakoitzari fitxa bat banatu zaio, lantalde baten funtzioak xehetasunez deskribatzen dituena. 1.taldeak komunikazio lantaldearen funtzioak aztertu ditu, 2.taldeak proiektu lantaldearenak eta 3.taldeak lantalde juridiko-administratiboarenak. Fitxako galderak erantzunez, funtzioetan sakondu dugu.

Ondoren, fitxak trukatu ditugu, beste lantalde baten funtzioak ezagutzeko. Bukatzeko, azken aldiz berriro

*Uxune ha explicado la dinámica de grupo. Nos hemos repartido en tres grupos, cada grupo con una fitxa que describe las funciones de un grupo de trabajo detalladamente. El primer grupo ha analizado las funciones del grupo de trabajo de comunicación, el segundo grupo las del grupo de trabajo de proyectos, y el tercer grupo las del grupo de trabajo jurídico-administrativo. Mediante preguntas planteadas en las fichas, se ha profundizado en las funciones.*

trukatu ditugu fitxak, hirugarren lantaldearen funtzioetan sakontzeko.

Lehenengo saiora etorri ez ziren jende asko etorri da gaur eta galdera gehienak ez dira izan funtzioei buruzkoak, baizik eta prozesuari, proiektuei edo kronogramari buruzkoak. Galdera horiek guztiak lehenengo saioan erantzunda zeuden, baina, hala ere, erabaki dugu tarte bat hartzea galderak erantzuteko.

Hurrengo saiotik aurrera, galdera mota horiek erantzunda kontsideratuko dira eta aktak irakurtzera bideratuko dira, prozesuak blokeorik izan ez dezan eta aurrera pausoak eman ditzagun.

*Después de un rato, se han rotado las fichas para conoces las funciones de otro grupo de trabajo; y, para terminar, se han rotado las fichas una última vez.*

*A la sesión de hoy ha asistido gente que no había venido a la primera sesión, y las preguntas han sido sobre los posibles proyectos, el proceso o el cronograma. Aunque esas preguntas ya estaban respondidas en la primera sesión, se ha optado a contestarlas todas otra vez.*

*A partir de la siguiente sesión, las preguntas de ese tipo se considerarán contestadas y se invitará a consultar los actas, con tal de no bloquear el proceso y podamos seguir dando pasos hacia delante.*

## 4. Dinamika: komunitatearen helburuak / *Dinámica: objetivos de la comunidad*

Uxunek dinamika aurkeztu du: paretetan, komunitaterako 14 helburu posible daude. Banaka, lau edo bost helburu aukeratu ditu pertsona bakoitzak, gometxak erabilita. Helburua izan da komunitatearen potentzialaz hausnartzea, helburuetarako lehen lanketa egitearekin batera.

Denon artean bozka gehien jaso dutenak komentatu ditugu. Ondoren, bozka gutxi jaso dituzten helburuetan zer ulertu dugun aipatu dugu. Bukatzeko, bozkarik jaso ez dutenen arrazoiak aztertu ditugu.

Bozka kopuruaren arabera ordenatuta, komunitatearen helburuetan kontuan hartu beharrekoa hau da (eranskinetan argazkiak):

- (10) Energia garbia eta segurua sortzea, bertatik bertara.
- (9) Herriaren energia kontsumoa murriztea.
- (9) Herriaren burujabetza energetikoa eta demokratikoa lortzea.
- (7) Dirua aurreztea.
- (7) Trantsizio energetikoa bultzatzea.
- (6) Tokiko ekonomia bultzatzea.
- (5) Erregai fosilen erabilera murriztea.
- (4) Herritarrak sentsibilizatzea eta aholkularitza ematea energia gaietan.
- (4) Kotxearen erabilera murriztea, mugikortasuna birplanteatuz.
- (4) Herritarrei energia berriztagarrietan parte hartzeko aukera ematea.
- (1) Talde zaurgarriak integratzea.

*Uxune ha explicado la dinámica: en la pared hay 14 posibles objetivos para la comunidad. Individualmente, cada persona ha elegido cuatro o cinco mediante pegatinas. El objetivo de la dinámica ha sido reflexionar sobre el potencial de la comunidad y empezar a trabajar con los objetivos.*

*Se han comentado los objetivos que más votos han tenido. Después, se ha comentado qué se ha entendido en los objetivos que han tenido pocos votos. Para finalizar, se han analizado las razones por las que se han quedado algunos sin votos.*

*Ordenados según número de votos, esta es la lista a tener en cuenta cuando se decidan los objetivos de la comunidad (fotos en anexos):*

- *(10) Producir energía limpia y segura, Km0.*
- *(9) Reducir el consumo energético del pueblo.*
- *(9) Conseguir la autosuficiencia energética y democrática del pueblo.*
- *(7) Ahorrar dinero.*
- *(7) Impulsar la transición energética.*
- *(6) Fomentar la economía local.*
- *(5) Reducir el uso de combustibles fósiles.*
- *(4) Sensibilizar a la ciudadanía y ofrecer asesoría en temas de energía.*
- *(4) Reducir el uso del coche, replanteándose la movilidad.*
- *(4) Ofrecer a la ciudadanía la opción de participar en energías renovables.*
- *(1) Integrar a los colectivos vulnerables.*

- (0) Talde erosketak bideratzea.
- (0) Energia berriztagarrien inguruko erreferente bihurtzea Nafarroan.
- (0) Airera emisioak murriztea.

- *(0) Gestionar compras colectivas.*
- *(0) Convertirse en referente de Navarra en energías renovables.*
- *(0) Reducir emisiones al aire.*

## 5. Itxiera / *Cierre*

Prozesuan parte hartuko dutenen kontaktu berriak bildu ditugu. 6 pertsona gehiagok eman duten izena.

Hurrengo saioa martxoaren 23an izango da, 18:00etan.

*Se han recogido más contactos interesados en participar en el proceso, en concreto 6 más.*

*La siguiente sesión será el 23 de marzo a las 18:00.*

## 6. Egitekoak / *Tareas*

| ZER | NORK |
|---|---|
| - | |
| - | |
| - | |
| - | |
| - | |

## 7. Eranskinak / *Anexos*

LANTALDEEN FUNTZIOAK

| **KOMUNIKAZIOA ETA KOMUNITATEA LANTALDEA** |
|---|
| Komunitatearen **zaintzaz** eta harreman-sareak **zabaltzeaz** arduratuko den lantaldea izango da.<br><br>Bertan zehaztuko dira **komunitatearen funtzionamendua**, harreman-sareak etengabe **zabaltzen joateko bideak eta komunikazio-estrategia**. |
| **GOIENER ETA EMUNEN BABESA** |
| Komunikazio estrategietan eta komunitatearen zaintzan baliabideak eskainiko dira, faltan botaz gero. |

**Zeregin zehatzak:**

- Komunikazio kanpaina proposatu:
  - Herriko eragile, komertzio eta enpresekin harremana.
  - EBKren aurkezpen ekitaldia noiz, nola, nork…
  - Komunikabideekin harremana.
- Komunikaziorako euskarriak proposatu eta prestatu:
  - Komunitatearen izena.
  - Logoa eta irudia.
  - Aurkezpenak (PPT), txostenak.
  - Email helbidea, webgunea, sare sozialak…
- Barne-dinamizazioa egin:
  - Talde motorraren gai zerrendak, deialdiak eta aktak.
  - Talde motorraren batzarren dinamizazioa eta moderazioa.
  - Barne komunikaziorako kanalak.
- Bestelako kanpo harremanak:
  - Beste EBK batzuekin harremana.
  - Harreman instituzionalak.

| **ENERGIA PROIEKTUEN LANTALDEA** |
|---|
| **Proiektu desberdinak proposatu** eta horien **bideragarritasuna aztertzea** izango da lantalde honen egiteko nagusia.<br><br>**Bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa, urgentzia eta eragin dezakeen ingurumen-inpaktua**, zein inpaktu soziala izango dira, gutxienez, kontuan izan beharreko alderdiak.<br><br>Ez dago metodologia bakar bat inpaktu-mota guztiak neurtzen dituena, kasuan kasu egokiena bilatu beharko da, baina, zehazki, inpaktu soziala aurreikusteko, baliagarria izango zaigu balioen markoa eraikita izatea. |
| **GOIENERREN BABESA** |
| Proiektuen bideragarritasun tekniko, juridiko eta ekonomikoen **azterketak** egingo dira eta egokienen **aurre-bideragarritasun txostenak** egin. |

**Zeregin zehatzak:**

- Proiektuak proposatu.
- Proiektuak bideragarri izan daitezen datu eta irizpideak proposatu:
    - Energia proiektuen kasuan, energiaren banaketa nola egin (autokontsumo koefizienteen banaketa).
    - Zenbat pertsona/eragile beharko liratekeen estimazioa.
    - Proiektuen bideragarritasun taulak bete (Goienerren Excel ereduak).
    - Proiektuetarako diru laguntza aukerak aztertu eta kudeatu.
- Hornitzaileekin kontaktua.

| |
|---|
| **LANTALDE JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA** |
| Lantalde hau **kooperatibaren eraketan** landu beharreko alderdiez arduratuko da.<br><br>Kooperatibaren **estatutuak landu** beharko dira eta bertan jasoko diren **organo, bazkide-mota eta finantzazio-iturrien inguruko gogoetak** egin. Horrek guztiak definituko du **komunitatearen gobernantza-eredua** bera. Komunitatearen **bideragarritasun ekonomikoa** ere landu beharko du, denboran zehar iraun dezan. |
| **GOIENERREN BABESA** |
| Estatutuen, gobernantzaren, finantzazioaren eta kontabilitate orokorraren proposamenak egingo dira. |

**Zeregin zehatzak:**

- Estatutuak sortu eta eguneratu: estatutuetan definitu beharreko atalen proposamena egin.
    - Kooperatibaren xedea.
    - Bazkide motak.
    - Organoen osaera: batzar orokorra, kontseilu errektorea, zaintza batzordea…
    - Erabakiak hartzeko gehiengoak.
    - …
- Kooperatiba sortzeko prozesua osatu:
    - Izena: ezezkoaren zertifikatua lortu (*Certificación negativa*).
    - Kontu korrontea sortu eta gutxieneko 1500€ko ekarpena egin.
    - Kontseilu errektorerako pertsonak/eragileak/erakundeak proposatu.
    - Eratze batzarra (eta eratze akta osatu)
    - Notaritzan erregistroa egin.
    - Ogasunean IFK eskatu.
- Kooperatiba martxan dagoenean, kooperatibaren bideragarritasuna bermatu eta kontabilitatea eraman.

*FUNCIONES DE LOS GRUPOS DE TRABAJO*

| GRUPO DE TRABAJO DE COMUNICACIÓN Y COMUNIDAD |
|---|
| Será el grupo de trabajo encargado de **cuidar** a las personas de la comunidad y hacer el **trabajo de difusión** hacia nuevos contactos.<br><br>En él se concretará el **funcionamiento de la comunidad**, **las vías para ir ampliando** las redes de relación de forma continua y la **estrategia de comunicación**. |
| **APOYO DE GOIENER Y EMUN** |
| Se ofrecerán recursos en estrategias de comunicación y cuidado de la comunidad, si se precisara. |

**Tareas concretas:**

- Proponer la campaña de comunicación:
  - Contacto con agentes, comercios y empresas.
  - Preparar el acto de presentación de la comunidad.
  - Contactos con los medios de comunicación.
- Proponer y preparar los soportes comunicativos:
  - Nombre de la comunidad.
  - Logo, imagen.
  - Presentaciones (PPT), informes.
  - Correo electrónico, página web, redes sociales…
- Otras relaciones:
  - Contacto con otras comunidades.
  - Relaciones institucionales.

| GRUPO DE TRABAJO DE PROYECTOS DE ENERGÍA |
|---|
| La labor principal de este grupo de trabajo será **proponer diferentes proyectos** y **analizar su viabilidad**.<br><br>**La viabilidad técnica, económica, la urgencia y el impacto ambiental potencial**, así como el impacto social serán, como mínimo, los aspectos a tener en cuenta.<br><br>No hay una metodología única que mida todo tipo de impactos, habrá que buscar el más adecuado en cada caso, pero en concreto, para prever el impacto social, nos servirá tener construido el marco de valores. |
| **APOYO DE GOIENER** |
| Se realizarán **estudios** de viabilidad técnica, jurídica y económica de los proyectos y se elaborarán los **informes de pre-viabilidad** más adecuados. |

**Tareas concretas:**

- Proponer proyectos.
- Proponer datos y criterios para que los proyectos sean viables:
  - Cómo realizar el reparto de energía (coeficientes de autoconsumo…).
  - Estimación de cuántas personas/CUPS se necesitan.
  - Estimación de cuotas.
  - Rellenar las tablas de viabilidad (las plantillas Excel de Goiener).
  - Analizar y gestionar las posibilidades de subvención para los proyectos.
- Contacto con los proveedores.

| GRUPO DE TRABAJO JURÍDICO-ADMINISTRATIVO |
|---|
| Este grupo de trabajo se encargará de los aspectos a tratar en la **constitución de la cooperativa**.<br>Habrá que **elaborar los estatutos** de la cooperativa y hacer reflexiones sobre los **órganos, tipos de socios y fuentes de financiación** que se recogerán en la misma. Todo ello definirá el **modelo de gobernanza** de la comunidad. También deberá trabajar la **viabilidad económica de la comunidad** para que perdure en el tiempo. |
| **APOYO DE GOIENER** |
| Se elaborarán propuestas estatutarias, de gobernanza, de financiación y de contabilidad general. |

**Tareas concretas:**

- Creación y actualización de estatutos: propuesta de los apartados a definir en los estatutos.
  - Objeto de la cooperativa.
  - Tipos de socios.
  - Composición de los órganos: asamblea general, consejo rector, comisión de vigilancia…
  - Mayorías para las decisiones.
- Realizar el proceso de creación de la cooperativa:
  - Nombre: tramitar la certificación negativa.
  - Crear una cuenta corriente e ingresar el mínimo de 1500€.
  - Proponer personas para el consejo rector.
  - Celebrar la asamblea constituyente (y su acta constituyente).
  - Hacer el registro en la notaría.
  - Pedir la NIF en Hacienda.
- Cuando la cooperativa esté en marcha, garantizar su viabilidad y llevar la contabilidad.

HELBURUEN ARIKETAKO ARGAZKIAK / *FOTOS DE LA DINÁMICA DE LOS OBJETIVOS*













Energia berriztagarrien inguruko erreferente bihurtzea Nafarroan.
Convertirse en referente de Navarra en energías renovables.
XEHETASUNAK / ALGÚN DETALLE QUE AÑADIR:


Herritarrei energia berriztagarrietan parte hartzeko aukera ematea.
Ofrecer a la ciudadanía la opción de participar en energías renovables.
XEHETASUNAK / ALGÚN DETALLE QUE AÑADIR:


Dirua aurreztea.
Ahorrar dinero.
XEHETASUNAK / ALGÚN DETALLE QUE AÑADIR:


Herriaren energia kontsumoa murriztea.
Reducir el consumo energético del pueblo.
XEHETASUNAK / ALGÚN DETALLE QUE AÑADIR:


Kotxearen erabilera murriztea, mugikortasuna birplanteatuz.
Reducir el uso del coche, replanteándose la movilidad.
XEHETASUNAK / ALGÚN DETALLE QUE AÑADIR:


Energia garbia eta segurua
Talde zaurgarriak integratzea.
Integrar a los colectivos vulnerables.
XEHETASUNAK / ALGÚN DETALLE QUE AÑADIR:


Herriaren burujabetza energetikoa eta demokratikoa lortzea.
Conseguir la autosuficiencia energética y democrática del pueblo.
XEHETASUNAK / ALGÚN DETALLE QUE AÑADIR:


Trantsizio energetikoa bultzatzea.
Impulsar la transición energética.
XEHETASUNAK / ALGÚN DETALLE QUE AÑADIR: